

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 772/2024 Erabakia, abenduaren 17koa. Onespena ematea bideak egokitzeko, kontserbatzeko, konpontzeko eta hobetzeko 2025erako laguntza lerroaren deialdiari

2024ko ekainetik urrira bitartean, ekaitz gogorrek izan ziren Arabako Lurralde Historikoko zenbait lekutan, batez ere, honako udalerrri hauetan: Berantevilla, Eltziego, Bastida, Urizaharra, Zanbrana, Aramaio eta Añana, eta, era isolatuan, toki erakunde hauetan: Kontrasta, Maeztu, Andoin, Bachicabo, Espejo, Osmá, Tobillas, Valderejo, Villanañe, Uribarri Gaubea eta Quintanilla.

Ekaitzek ur kantitate handia utzi zuten denbora laburrean, eta horrek eragina izan zuen Arabako Foru Aldundiaren Landa Bideen Erregistroko zenbait bideren egituran eta errodadura geruzan.

Gertaera klimatologiko horien ondoren, Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuko teknikariek kalte-tutako bideak aztertu zituzten, kalteen larritasuna zehazteko eta egin behar ziren konponketen kostu ekonomikoa zenbatetzeko.

Eragindako kalteen larritasuna ikusita, erakunde titularrek ahal bezain laster konpondu eta egokitu behar dituzte kalte-tutako bideak, eragindako nekazaritza ustiategi-erako sarbideak lehenagoratzeko eta nekazari- eta abeltzainek modu seguruan eta egokian erabili ahal izango dituztela bermatzeko. Jarduketa horiek gauzatzeko, toki erakundeek bat-bateko gastu ekonomiko handiari egin behar diote aurre.

Nekazaritza Sailak Landa bideak erabili, kontserbatu eta hobetzeko 6/95 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatzen duenez, Arabako Foru Aldundiak toki erakundeentzako laguntza lerroak ezarri behar ditu, erregistroan dauden bideak kontserbatu eta mantentzeko.

Erakunde eskatzaileentzako eta Arabako Foru Aldundiaren beraren izapidetze organoentzako administrazio izapideak arintzeko beharra kontuan hartuta, komeni da deialdia aurretiazko izapidetzearen bidez kudeatzea eta aldiberekoa izatea 2025 eta 2026 ekitaldietako diruz lagun daitezkeen inbertsio-erako.

Arabako Foru Aldundiaren 2025erako aurrekontu proiektuan 40101. G/414400/76290419 "Nekazaritza azpiegiturak hobetzea 2025" partida dago. Partida horrek 915.000,00 euroko saldoa du, guztira, urteka honela banatuta:

- 2025eko urterokoa: 515.000,00 euro.
- 2026ko urterokoa: 400.000,00 euro.

Euri erauntsiek edo bestelako fenomeno naturalek kalte-tutu dituzten eta egokitzea eta hobetzea behar duten bideak konpontzeko aurrekontu erabilgarri guztia erabiltzen ez bada, bideak egokitzeko eta hobetzeko gainerako jarduketetan erabili ahal izango da erabilgarri dagoen aurrekontu kreditua.

Horrenbestez, Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea landa bideak egokitu, kontserbatu, konpondu eta hobetzeko laguntzen 2025eko deialdia, aurretiazko izapidetzearen bidez. Hona hemen xehetasunak:

- Laguntzen deialdiko inbertsioak:

- Bide motak: Arabako Foru Aldundiaren Bideen Erregistroan inskribatuta dauden eta Arabako Lurralde Historikoko landa bideak erabili, kontserbatu eta hobetzeko otsailaren 13ko 6/95 Foru Arauan xedatutakoa bete behar duten bideak.

- Diruz lagundu daitezkeen inbertsioak:

- Euri jasek edo beste fenomeno natural batzuek eragindako kalteen ondorioz bideak egokitzeko eta hobetzeko egin behar diren jarduketak (4.4. artikulua).

Honako udalerrri hauetako erakundeak: Berantevilla, Eltziego, Bastida, Urizaharra, Zanbrana, Aramaio eta Añana, eta, era isolatuan, toki erakunde hauetan: Kontrasta, Maeztu, Andoin, Bachicabo, Espejo, Osmá, Tobillas, Valderejo, Villanañe, Uribarri Gaubea eta Quintanilla.

- Lehendik dauden bideak egokitzea eta kontserbatzea (4.2. artikulua).

- Lehen adierazitako inbertsioei lotutako jarduketa orokorren kostuak (4.5 artikulua).

4.4 artikuluko inbertsioetan soberako kreditua badago, 4.2 artikuluko inbertsioetara bideratu ahal izango da.

- Eskaerak aurkezteko epea: 20 egun baliodun, erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

- Eskaerak aurkeztea:

Laguntza eskaerak, 39/2015 Legearen 14.2 artikulua betez, telematikoki aurkeztu behar dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoko berariazko izapidearen bitartez <https://egoitza.araba.eus/eu/-/ayudas-caminos-rurales>, eredu normalizatuan.

Egoitza elektronikoko zerbitzuak erabiltzeko, nahitaezkoa da modu telematikoa identifikatzea, ziurtagiri digital baten edo BAKO sistemaren bidez: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>.

Eskaerak eskatzailearen ordezkari batek ere aurkeztu ahal izango ditu, baldin eta aurrez izapide hori gauzatzeko beharrezko baimen maila ezarri bada egoitza elektronikoa: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/baimenak>.

Erregistro elektronikoa bakar batean aurkeztu daitezkeen gehieneko luzera gainditzen duen dokumentazio osagarria aurkeztu behar bada, beste aurkezpen bat egin ahal izango da. Aurkezpen horretan, zer erregistro zenbaki edo kode individualizaturen osagarria den aipatu beharko da, gutxienez, edo hura identifikatzeko informazio nahikoa.

Erakunde eskatzaileek laguntza eskaera bakarra aurkeztu behar dute, eta, bertan, egin beharreko jarduketa guztiak jaso behar dituzte, bai eta lan horiek zein bidetan gauzatu nahi dituzten ere.

- Aurkeztu behar den dokumentazioa: laguntza hau arautzen duten oinarrietan ezarritakoa (9.4 artikulua).

- Puntuazioa eta lehentasun irizpidea: laguntza hau arautzen duten oinarrietan ezartzen direnak (6. artikulua), kontuan hartuta 4.4 lerroak lehentasuna duela eta soberako kreditua badago soilik lagunduko direla diruz gainerako eskaerak.

- Laguntzaren ehunekoa:

- Euri jasek edo beste fenomeno natural batzuen ondorioz egin beharreko jarduketa bereziak: ehuneko 80.

- Lehendik dauden bideak egokitzea eta kontserbatzea: ehuneko 65.

- 4.5. artikuluan aipatzen diren jarduketa orokorren kostuak: kostu zenbatetsiaren ehuneko 100.

- Erakunde bakoitzak gehienez eska ditzakeen bideak (inbertsioak):

- Euriak eragindako kalteak dituzten erakundeentzat: ez dago mugarik.

- Gainerako erakundeak: bi.

- Erakundeko gehieneko zenbatekoa:
 - Euriak eragindako kalteak dituzten erakundeentzat: ez dago mugarik.
 - Gainerako erakundeak: 45.000,00 euro.
- Inbertsioa diruz lagundu ahal izateko gutxieneko zenbatekoa erakundeko: 4.000,00 euro.
- Kreditu erreserba: Arabako Foru Aldundiko 2025. urterako gastuen aurrekontuko 40101. G/414400/76290419 “Nekazaritza egiturak hobetzea 2025” partidaren kontura; guztira, 915.000,00 euro, urteka honela banatuta:
 - 2025: 515.000,00 euro.
 - 2026: 400.000,00 euro.

Kreditu horiek eskuratzeko lehentasuna izango dute fenomeno natural kaltegarrien ondorioz nekazaritza azpiegiturak hobetzeko eskatutako laguntzek, eta laguntza horiek ebatzi aurreko bi aurrekontu partidetan erabilgarri dagoen kreditu osoa erabili ahal izango da.

Kreditu hori zenbateko gehigarriekin handitu ahalko da, gehienez ere hasieran erreserbatutako zenbatekoan, Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 21. artikuluan xedatutako mugen barruan, baita aurrekontu partidaren edozein zioerengatik gerta daitekeen kreditu gehikuntzagatik ere.

Bigarrena. Dirulaguntzak emateko baldintza etengarria izango da kreditu egoki eta nahikoa egotea Arabako Foru Aldundiaren 2025erako eta 2026rako aurrekontu antolamenduan.

Hirugarrena. Nekazaritza Saileko diputatuari ahalmena ematea erabaki hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Laugarrena. Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da, nahi izanez gero, EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 17a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

NOEMÍ AGUIRRE QUINTANA

Nekazaritza zuzendaria

DAVID FERNÁNDEZ SARABIA